



ERAIKINGINTZA
ETA OBRA
ZIBILAK

Profesionaltasun-ziurtagiria

FABRIKETAKO ETA ESTALKIETAKO IGELTSERO-ERAGIKETA
OSAGARRIAK
[1. maila]



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua
Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional



ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK
Profesionaltasun-ziurtagiria

Edukiak

I PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA

IZENA	06
KODEA	06
LANBIDE-ARLOA	06
LANBIDE-EREMUA	06
ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA	06
LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA	06
GAITASUN OROKORRA	06
PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENTA	06
LANBIDE-INGURUNEA	06
PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENTA ETA HAIEN IRAUPENA	07

II PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN LANBIDE-PROFILA

1	1. gaitasun-atala	10
	ERAIKUNTZA-OBRETAKO LAN OSAGARRIAK EGITEA	
2	2. gaitasun-atala	11
	PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK EGITEA	
3	3. gaitasun-atala	13
	ESTALTZEKO FABRIKAK ERAKITZEA	
4	4. gaitasun-atala	14
	ESTALKIETARAKO ISURIALDE TRIANGELUARRAK ERAKITZEA	

III PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

1	1. prestakuntza-modulua:	18
	OBRAKO LAN OSAGARRIAK	
2	2. prestakuntza-modulua:	20
	PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK	
3	3. prestakuntza-modulua:	22
	ESTALTZEKO FABRIKA-OBRAK	
4	4. prestakuntza-modulua:	27
	ESTALKIETAKO ISURIALDE TRIANGELUARRAK	
5	5. prestakuntza-modulua:	31
	FABRIKETAKO ETA ESTALKIETAKO IGELTSERO-ERAGIKETA OSAGARRIETAKO LANEKOAK EZ DIREN LANBIDE-JARDUNBIDEAK	



IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA EKIPAMENDUEN GUTXIENeko ESKAKIZUNAK, ETA SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEAK	34
GUNEAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	35
SARTZEKO IRIZPIDEAK	36



I PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA



IZENA

FABRIKETAKO ETA ESTALKIETAKO IGELTSERO-ERAGIKETA OSAGARRIAK

KODEA

EOCB0208

LANBIDE-ARLOA

Eraikingintza eta obra zibilak

LANBIDE-EREMUA

Igeltserotza eta akaberak.

ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA

EOC271_1: Fabriketako eta estalkietako igeltsero-eragiketa osagarriak. (872/2007 EDa, 2007ko uztailaren 2koa)

LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA

1

GAITASUN OROKORRA

Estaltze-adreiluzko eta -blokezko hormak eta partizioak eraikitzea, estalkietako obretan estaldura-euskarriaren elementuak eraikitzea eta jartzea, eta lan osagarriak egitea obra-lekuetan, jasotako argibideei eta segurtasun- eta osasun-arloan ezarritako arauak jarraituz.

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDAA

- UC0276_1: Eraikuntza-obretako lan osagarriak egitea
- UC0869_1: Pastak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoioak egitea.
- UC0142_1: Estaltzeko fabrikak eraikitzea
- UC0870_1:: Estalkietarako isurialde triangeluarrak eraikitzea

LANBIDE-INGURUNEA

Lanbide-esparrua

Ekoizpenaren arloan lan egiten du, eta arlo pribatuko enpresa txiki, ertain eta handietako soldatapeko langilea izaten da. Ez du lanbide-erregulaziorik.

Ekoizpen-sektoreak

Eraikuntza-sektorea, batik bat eraikin berrietan eta birgaitze-lanetan.

Dagozkion lanbideak edo lanpostuak:

7199.1021 Aurrefabrikatu arinen jartzailea (eraikuntza).

9602.1013 Eraikin-eraikuntzako peoia.

Igeltserotzako langilea.

Estalkietako langilea.

Igeltsero-laguntzailea.

Igeltsero trenkadagilea



Bloke aurrefabrikatuen jartzailea.
Peoi espezializatua

PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ORDUAK	PRESTAKUNTZA-ATALAK	ORDU AK
MF0276_1 (ZEHARKAKOA) Obrako lan osagarriak	50		
MF0869_1 (ZEHARKAKOA) Pastak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoiak	30		
MF0142_1 (ZEHARKAKOA) ESTALTZEKO FABRIKA-OBRAK	120	UF0302: Igeltserotza-lanetarako ekipoak eta baliabideak prestatzeko prozesua	40
		UF0303: Estaltzeko fabrikak egitea	80
MF0870_1 (ZEHARKAKOA) Estalkietako isurialde triangeluarrak	120	UF0302: Igeltserotza-lanetarako ekipoak eta baliabideak prestatzeko prozesua	40
		UF0642: Estalkietako isurialde triangeluarrak egitea	80
MP0133: Fabriketako eta estalkietako igeltsero- eragiketa osagarrietako laneoak ez diren lanbide-jardunbideak	40		
ORDUAK, GUZTIRA	320		

II LANBIDE-PROFILA

1. gaitasun-atala
ERAIKUNTZA-OBRETAKO LAN OSAGARRIAK EGITEA

1

2. gaitasun-atala
PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK
EGITEA

2

3. gaitasun-atala
ESTALTZEKO FABRIKAK ERAIKITZEA

3

4. gaitasun-atala
ESTALKIETARAKO ISURIALDE TRIANGELUARRAK
ERAIKITZEA

4



1

1. gaitasun-atala:

ERAIKUNTZA-OBRETAKO LAN OSAGARRIAK EGITEA

Kodea: UC0276_1

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Lanerako ekipoak (erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak) behar bezala erabiltzea, behar den errendimendua eta kalitatea lortzeko, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta lanaldiaren amaierako eragiketak eginez.

BI1.1 Aukeratzeko diren erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak egokiak dira egin beharreko lana egiteko.

BI1.2 Hartzen diren segurtasun-neurriak ahoz zein idatziz jasotako aginduak dira.

BI1.3 Lanaldiaren amaierako mantentze-lanak behar bezala egiten dira erabilitako lan-ekipo guztietan.

LB2: Zamak manipulatzeko eta garraiatzeko obra-lekuak eta biltegiak hornitzeko eta ordenatzeko, argibideei jarraituz eta ezarritako segurtasun- eta osasun-neurriak errespetatuz.

BI2.1 Zamak eskuz igotzeko eta jaisteko, esku-ahurrak erabili behar dira, belaunak tolestu, bizkarrari zuzen eutsi eta zama gorputzera hurbildu.

BI2.2 Materialak aurrez ezarritako ibilbideei jarraituz banatzen dira, obrako seinaleak errespetatuz eta beste lan batzuk oztopatu gabe.

BI2.3 Materialak biltegitratzeko, fabrikatzaileak adierazitako antolaketa eta altuera maximoa errespetatzen dira, eta altxagarria jartzen zaie behar duten materialei.

BI2.4 Obra-lekuan entregatzen diren hornigaiak eskutatuko ezaugarriak, kopuruak, eta epeak errespetatzen dituzte.

BI2.5 Jasotzeko eta garraiatzeko makinaren operadoreentzako oharrak argiak eta behar bezain zehatzak dira, eta karga-eragiketen eremutik kanpo ematen dira.

BI2.6 Eslingak, zintak, kateak eta ainguratzeko beste gehigarriak jaso eta garraiatu beharreko kargarako zehaztutakoak dira, adierazitako puntuetan ainguratzen dira behar bezain seguru, eta blokeatzeko mekanismoak aktibatuz kakoetan eta estropuetan.

BI2.7 Materialak jasotzeko karga-jasogailuekin egiten diren eragiketak zehaztutako prozedura, errendimendu eta segurtasun-neurriei jarraituz egiten dira.

BI2.8 Materialak garraiatzeko motoiraulkiekin egiten diren eragiketak zehaztutako prozedura, errendimendu eta segurtasun-neurriei jarraituz egiten dira.

LB3: Obra-lekuak prestatzea, errendimendua hobetzeko eta arriskuak saihesteko obran, hondakinak jasoz, baliabide osagarriak eta segurtasun kolektibokoak instalatzen eta zaintzen lagunduz, argibideei jarraituz eta ezarritako segurtasun- eta osasun-arauak errespetatuz.

BI3.1 Obra-lekuak garbitzen dira, ezarritako maiztasuna errespetatuz eta zaborra eta obra-hondakinak hondakin-mota bakoitzerako prestatutako edukiontzietan utziz.

BI3.2 Lesioak eragin ditzaketen objektuak eta hondakinak berehala kendu behar dira, batez ere ertz biziak dituztenak, zirkulazio-bideetan daudenak edo langileen erorikoak saihesteko jartzen diren sareetan erortzen direnak.

BI3.3 Eskutatutako baliabide osagarriak (eskailerak, aldamioak, plataforma mugikorak) argibideetan zehaztutako moduan, epean eta segurtasun-kondizioetan muntatzen, desmuntatzen eta zaintzen dira.

BI3.4 Babes kolektiborako elementuak (sareak, barandak, baoen babesak) argibideetan zehaztutako moduan, epean eta segurtasun-kondizioetan muntatzen, desmuntatzen eta zaintzen dira.

BI3.5 Itxurako mantentze-lanak eta seinaleztatze-lanak argibideei jarraituz egiten dira, zehaztuta ez dauden sarbideak galarazten dituzte eta seinaleak ondo ikusteko moduan jartzen dira.

LB4: Obrako lanbideei laguntzea obra-lekuak prestatzeko eta osatzeko, makina arinak behar bezala erabiliz, ezarritako segurtasun-neurriak betez, eta lanaldiaren amaierako eragiketak eginez.

BI4.1 Materialak ebakigailuekin ebakitzeko eragiketak zehaztutako prozedurei, errendimenduei eta segurtasun-neurriei jarraituz egiten dira.

BI4.2 Mailu hausle bidezko eraspen partzialeko eragiketak zehaztutako prozedurei, errendimenduei eta segurtasun-neurriei jarraituz egiten dira.

BI4.3 Erretenak eta zuloak egiteko makinak zehaztutako prozedurei, errendimenduei eta segurtasun-neurriei jarraituz erabiltzen dira.

BI4.4 Behar izanez gero, erretenak irekitzeko lanak osatzen dira kableentzako tutuak sartzeko eta erretena betetzeko lanekin, zehaztutako materialak eta prozedurak erabiliz.

BI4.5 Lurra trinkotzeko erretilu eta sumil bibratzaileak zehaztutako prozedurei, errendimenduei eta segurtasun-neurriei jarraituz erabiltzen dira.

BI4.6 Erabiltzen diren makina elektrikoek behar bezala zainduta dituzte konexio-kabilak, kableen isolamenduak eta babes-karkasak.

BI4.7 Lanaldiaren amaierako mantentze-lanak behar bezala egiten dira erabilitako makina arin guztietan.

LB5: Azaleko zimendatze-lanetarako eta zerbitzu-sareak sartzeko lubakiak eta hobiak eskuz hondeatzea, eta hondoak eta alboak profilatzea eta fintzea, jasotako argibideei jarraituz eta ezarritako segurtasun-kondizioak errespetatuz.

BI5.1 Hondeatzean izandako gorabeherak nagusiari edo arduradunari jakinarazten zaizkio, eta gorabehera konpontzeko argibideak eskatzen zaizkio.

BI5.2 Hondeatzen diren lubakiek eta hobiak zuinketa-gidetan zehaztutako tamaina dute, eta dagokien sakonera erreferentzia-mailarekiko.

BI5.3 Hustuketaren hondoak argibideen arabera garbitzen eta berdintzen dira, gainazala finduz.

BI5.4 Lubakiak eta hobiak hustu ondorengo hormak behar bezala hondeatzen dira, zehaztutako profila izan dezaten.

Lanbide-testuingurua:

Ekoizpen-baliabideak

Nibelak, berunak, eskuairak eta metroak. Palak, pikatxoak, aitzurrak, eskorgak, kurrikak, aliketak, hotzeko zizelak, mailuak eta mazoak. Arrabotak, kuboak, esportak eta edukiontziak. Eslingak, kableak, zintak, estropuak, kakoak eta kargak jasotzeko eta garraiatzeko beste osagarri batzuk. Karga-jasogailuak, ebakigailuak, mailu hausleak, erretenak egiteko makinak eta zulagailuak, erretilu eta sumil bibratzaileak (igel-sumilak). Erretenak betetzeko pastak eta morteroak. Kableak babesteko hodiak. Eraikuntza-materialak. Norbera babesteko baliabideak eta babes kolektiboko baliabideak. Baliabide osagarriak. Behin-behineko instalazioak.

Produktuak eta emaitzak

Obra-lekuen egokitzapena. Obra-lekuak hornitzea. Obra-lekuen mantentze-lanak eta garbiketa. Lanbideei laguntzeko lanak.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Lan-agiriak, gorabeheren agiriak, eskaera-agiriak eta materialak jasotzea. Makina arinen eskuliburuak, fabrikatzaileek eskainiak. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak. Obraren seinalizazioa.

2

2. gaitasun-atala:

PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK EGITEA

Kodea: UC0869_1

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Lanerako materialak eta ekipoak (makinak, erremintak, tresnak eta norbera babesteko ekipoak) behar bezala erabiltzea, behar den errendimendua eta kalitatea lortzeko, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta lanaldiaren amaierako eragiketak eginez.

BI1.1 Aukeratzen diren makinak, erremintak, tresnak eta norbera babesteko ekipoak egokiak dira egin beharreko lana egiteko.

BI1.2 Hartzen diren segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak ahoz zein idatziz jasotako aginduak dira.



- BI1.3 Lanaldiaren amaierako mantentze-lanak behar bezala egiten dira erabilitako lan-ekipo guztietan.
- BI1.4 Sortutako hondakinak horretarako prestatutako espazioetan botatzen edo metatzen dira, ezarritako segurtasun-irizpideak eta ingurumena babestekoak errespetatuz.
- LB2: Igeltsuzko, zementuzko eta karezko morteroak eta pastak prestatzea, eskuz zein mekanikoki, igeltserotza- eta estaldura-lanetarako ezarritako konposizio eta dosiari jarraituz, eta eskatutako epe eta bolumenak betez.
- BI2.1 Erabiltzen diren osagaiak finkatutakoak dira, mota, tamaina, agregakin-forma, aglomeratzaile-mota eta aditibo-klaseari dagokienez.
- BI2.2 Osagaien dosia eta ur-bolumena behar diren trinkotasun- eta erresistentzia-kondizioak lortzeko zehaztutakoak dira.
- BI2.3 Makina bidezko proiektzioarako nahasketak haren ezaugarriak eta ingurune-kondizioak kontuan hartuz dosifikatzen dira.
- BI2.4 Errespetatu egiten dira oratzeari, doitasun-denborei eta ingurune-kondizioei buruzko zehaztapenak.
- BI2.5 Prestatzen den nahasketa behar bezain homogenea da, eta kantitatea, eskatutakoa.
- BI2.6 Zehaztutako denbora-epean entregatzen da nahasketa, hura lantzeko behar den denbora errespetatuz.
- LB3: Hormigoiak prestatzea, eskuz zein mekanikoki, eraikuntza-lanetarako ezarritako konposizio eta dosiari jarraituz, eta eskatutako epe eta bolumenak betez.
- BI3.1 Erabiltzen diren osagaiak finkatutakoak dira, mota, tamaina, agregakin-forma, aglomeratzaile-mota eta aditibo-klaseari dagokienez.
- BI3.2 Osagaien dosia eta ur-bolumena behar diren trinkotasun- eta erresistentzia-kondizioak lortzeko zehaztutakoak dira.
- BI3.3 Errespetatu egiten dira oratzeari, doitasun-denborei eta ingurune-kondizioei buruzko zehaztapenak.
- BI3.4 Prestatzen den nahasketa behar bezain homogenea da, eta kantitatea, eskatutakoa.
- BI3.5 Zehaztutako denbora-epean entregatzen da nahasketa, hura lantzeko behar den denbora errespetatuz.
- LB4: Aurrez finkatutako dosiko morteroak prestatzea, eskuz zein mekanikoki, igeltserotza- eta estaldura-lanak egiteko, fabrikatzailearen gomendioak, zehaztutako kalitate-kondizioak eta ezarritako segurtasun-arauak eta ingurumena babestekoak betez.
- BI4.1 Erabiltzen diren produktuak, kantitateak eta kontserbazio-egoera egokiak dira ezarritako ezaugarriak lortzeko, eta fabrikatzaileak adierazi edo gomendatu bezala biltegiatzen eta manipulatzeko.
- BI4.2 Makina bidezko proiektzioarako morteroak eta pastak haren ezaugarriak eta ingurune-kondizioak kontuan hartuz dosifikatzen dira.
- BI4.3 Errespetatu egiten dira oratzeari, oratze aurreko itxarote-denborei, doitasun-denborei eta ingurune-kondizioei buruzko zehaztapenak.
- BI4.4 Prestatzen den nahasketa behar bezain homogenea da, eta kantitatea, eskatutakoa.
- BI4.5 Zehaztutako denbora-epean entregatzen da nahasketa, hura lantzeko behar den denbora errespetatuz.
- LB5: Itsasgarriak eta juntura berdintzeko materialak prestatzea estaldura-lanak egiteko, baliabide mekanikoak erabiliz, fabrikatzaileak ezarritako dosiei eta argibideei jarraituz eta eskatutako epeak eta bolumenak betez.
- BI5.1 Erabiltzen diren produktuak, kantitateak eta kontserbazio-egoera egokiak dira ezarritako ezaugarriak lortzeko, eta fabrikatzaileak adierazi edo gomendatu bezala biltegiatzen eta manipulatzeko.
- BI5.2 Zementu-itsasgarriak finkatutako ur-bolumenarekin nahasten dira, kondizio hauek betez:
- Erabiltzen den ura edatekoa izango da edo, bestela, materia organikoki edo beste material arrotzik gabea.
 - Produktu lehorra uretan botatzen da beti.
 - Ur-bolumenak fabrikatzaileak adierazitako proportzioa errespetatzen du (hainbeste litro zakuko edo kilogramoko).
 - Ura emultsioekin ordezkatzuz gero (neurri batean edo erabat), fabrikatzaileak adierazitako ordezkapen-proportzioa errespetatzen da.
 - Fabrikatzaileak heltze-prozesuaren denborari eta balio-bizitzari buruz ematen dituen argibideak errespetatzen dira.
- BI5.3 Erreakzio-erretxinaren itsasgarriak eta juntura berdintzeko materialak lortzen dira osagaiak nahastuz eta ontzietako eduki osoa erabiliz.
- BI5.4 Dispertsio-erretxinaren itsasgarriak, erabiltzeko prest merkatutakoak, irabiatze mekaniko labur baten ondoren erabiltzen dira, eta ontzietan ondo itxita utzi behar dira lanaldia bukatzean, gero berriz erabili ahal izateko.
- BI5.5 Errespetatu egiten dira oratzeari buruzko zehaztapenak (tresna, abiadura, irabiatze-denbora eta berriz oratu aurreko itxarote-denbora), bai eta ingurune-kondizioei buruzkoak ere, behar diren trinkotasuna eta ahalmen hezegarria lortuz.



BI5.6 Prestatzen den nahasketa behar bezain homogenea da, ez du pikorrik ez aire-burbuilarik, eta kantitatea eskatutakoa da.

BI5.7 Nahasketa heltze-prozesuaren iraupena errespetatuz entregatzen da, eta produktuaren bizi-balioak iraun bitartean, zeina fabrikatzaileak zehazten baitu, ingurune-kondizioen arabera.

Lanbide-testuingurua:

Ekoizpen-baliabideak

Hormigoi-makinak, nahasgailuak eta irabiagailuak. Paletak, palak, eskorgak, tiraderak, esportak, pertzak, azpilak eta oraskak. Aglomeratzaileak: karea, igeltsua eta zementua. Legarra. Harea. Ura. Aditiboak. Aurrez dosifikatutako nahasketak. Norbera babesteko baliabideak.

Produktuak eta emaitzak

Pastak, morteroak, itsasgarriak, juntura berdintzeko materialak eta hormigoiak, hauetan aplikatzeko: fabrikak, estaldurak, zigilatzea, sendogarriak, itsasteak, iragazgaizteak, junturak berdintzea, betetzea, nibelazioa, ainguraketa eta/edo injekzioak.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Lan-agiriak, gorabeheren agiriak, eskaera-agiriak eta materialak jasotzea. Produktu-fabrikatzaileen gomendio teknikoak. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko eragikideak. Makinen eskuliburuak, fabrikatzaileek eskainiak.

3

3. gaitasun-atala: ESTALTZEKO FABRIKAK ERAIKITZEA

Kodea: UC0142_1

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Lanerako ekipoak (makinak, erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak) behar bezala erabiltzea, behar den errendimendua eta kalitatea lortzeko, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta lanaldiaren amaierako eragiketak eginez.

BI1.1 Aukeratzen diren materialak, makinak, erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak egokiak dira egin beharreko lana egiteko.

BI1.2 Hartzen diren segurtasun-neurriak ahoz zein idatziz jasotako aginduak dira.

BI1.3 Lanaldiaren amaierako mantentze-lanak behar bezala egiten dira erabilitako lan-ekipo guztietan.

LB2: Adreiluz edo blokez estaltzeko fabrikak eraikitzea, morteroz hartuak, proiektuan definitutako itxitura edo fabrika sendoak lortzeko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-kondizioak errespetatuz.

BI2.1 Lehen ilararen zuinketa egiten da, piezak lehorrean prestatuz eta baoak errespetatuz, eta trabaki eta kokapen-forma zuzenak lortuz ahalik eta pieza gutxien ebakiz.

BI2.2 Adreiluak morteroaren gainean jartzen dira beti, egiaztatuz behar bezain bustiak daudela.

BI2.3 Blokeek behar bezain bustita dute morteroak ukitzen duen azalera, eta zuloak elementuaren altuera osoan bat etortzeko moduan jartzen dira.

BI2.4 Albo-junturek eta azpi-junturek zehaztutako lodiera dute, eta morteroz betetzen dira.

BI2.5 Egiten den elementuaren kokapen-formak, lautasunak eta galgatzeak emandako zehaztasunak betetzen dituzte.

BI2.6 Egiten diren hormen elkarguneak behar bezala lotuta daude pareta-hortzen artean, eta pareta-hortzen eta baoen artean.



BI2.7 Leihoburuetako karga-habeak behar bezala lerrokatzen dira, baoan zentratuta, aurreikusitako berme-zatiak eta zehaztutako altuera errespetatuz.

BI2.8 Armadura sendogarriak, pareta-hari edo baoetan, zehaztutako mota, kopurua, antolaera eta prozedura errespetatuz jartzen dira.

BI2.9 Exekutatzan den fabrikako baoetan hartutako elementuak behar bezala kokatuta, ainguratuta, galgatuta, nibelatuta eta segurtatuta daude.

LB3: Estaltzeko fabrikak eraikitzea, morteroz edo igeltsu-pastaz hartuak, proiektuan itxitura definituak lortzeko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-kondizioak errespetatuz.

BI3.1 Lehen ilararen zuinketa egiten da, piezak lehorrean prestatuz eta baoak errespetatuz, eta trabaki eta kokapen-forma zuzenak lortuz ahalik eta pieza gutxien ebakiz.

BI3.2 Egiten den elementuaren kokapen-formak, lautasunak eta galgatzeak emandako zehaztasunak betetzen dituzte.

BI3.3 Forjatuaren eta goi-ilararen arteko lasaierak aurrez zehaztutako lodiera du, eta zehaztutako epea amaitu ondoren betetzen da.

BI3.4 Fabrika-elementuak lotzeko, pareta-hortzak jartzen dira lodiera osoan eta zehaztutako ilara-kopuruan.

BI3.5 Egiten diren partizioek egiturazko junturetan adierazitako jarraitutasun eza errespetatzen dute.

BI3.6 Igeltsuz hartutako partizioen baoak, zehaztutako tamaina baino handiagoak badira, bi ilara irauliren deskarga-arku baten bidez egiten dira.

BI3.7 Fabriken estradoseko isolamendu-panelak behar bezala jartzen dira, zehaztutako finkatze- eta teilakatze-kondizioei jarraituz.

BI3.8 Itxituren estradoseko partizioak egiteko, aire-ganberentzat zehaztutako lodiera errespetatzen da, behar bezala lotzen dira planoak eta harkantoiak, eta haien estankotasuna lortzen da.

Lanbide-testuingurua:

Ekoizpen-baliabideak

Paletak, nibelak, berunak, eskuairak eta metroak. Mirak eta sokak. Palak, eskorgak, tiraderak, esportak eta pertzak. Morteroak eta pastak. Adreilu zeramikoak. Harea eta karezko adreiluak. Ebakigailuak. Hormigoizko bloke aurrefabrikatuak Zeramikazko blokeak eta bloke arinak. Isolatzaile termiko eta akustikoak, itxituren estradoserako. Karga-habeak. Norbera babesteko baliabideak eta babes kolektiboko baliabideak. Baliabide osagarriak. Behin-behineko instalazioak.

Produktuak eta emaitzak

Itxiturak, partizioak eta fabrika-elementu erresistenteak, adreiluz eta blokez estaltzeko.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Obraren krokisak, igeltserotzako fabrikekin lotuak. Lan-agiriak, gorabeheren agiriak, eskaera-agiriak eta materialak jasotzea. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak. Obraren seinalizazioa.

4

4. gaitasun-atala:

ESTALKIETARAKO ISURIALDE TRIANGELUARRAK ERAKITZEA

Kodea: UC0870_1

Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Lanerako ekipoak (makinak, erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak) behar bezala erabiltzea, behar den errendimendua eta kalitatea lortzeko, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta lanaldiaren amaierako eragiketak eginez.

BI1.1 Aukeratzen diren materialak, makinak, erremintak, tresnak, norbera babesteko ekipoak eta baliabide osagarriak egokiak dira egin beharreko lana egiteko.

- BI1.2 Hartzen diren segurtasun-neurriak ahoz zein idatziz jasotako aginduak dira.
- BI1.3 Lanaldiaren amaierako mantentze-lanak behar bezala egiten dira erabilitako lan-ekipo guztietan.
- LB2: Teilape-trenkadak eraikitzea, morteroz edo pastaz hartutako adreiluz eginak, isurialde triangeluarren euskarriak lortzeko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-kondizioak errespetatuz.
- BI2.1 Erregelak edo mirak zuinketaren arabera egiten dira berunean, eta hartu egiten dira, eta obraren maila kontuan hartzen da denetan.
- BI2.2 Piezak lehorrean jarri zuinkatzen da lehenengo ilara, trabaki eta kokapen-forma zuzenak lortuz ahalik eta pieza gutxien ebakiz.
- BI2.3 Egiten den elementuaren lautasunak eta galgatzeak, eta goi-ilararen maldak emandako zehaztasunak betetzen dituzte.
- BI2.4 Trenkadak lotzeko, pareta-hortzak jartzen dira lodiera osoan eta zehaztutako ilara-kopuruan.
- BI2.5 Egiten diren partizioek egiturazko junturetan adierazitako jarraitutasun eza errespetatzen dute.
- BI2.6 Estalkitik eta baoetatik ateratzen diren elementuak babestu egiten dira lanak egin bitartean, beren funtzioa betetzen jarrai dezaten.
- LB3: Estalkietarako isurialde triangeluarrak eraikitzea, zeramikazkoak, egurrezkoak eta hormigoi-xaflezkoak, eta maldak egiteko geruzak egitea, estalki lau eta inklinatueta maldak osatzeko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-kondizioak errespetatuz.
- BI3.1 Egiaztatzen da oholaren euskarri diren plano bertikalen arteko tartea egokia dela oholaren piezei eusteko.
- BI3.2 Adreilu meheak, ohol zeramikoak eta hormigoizko xafla aurrefabrikatuak behar bezala bermatuta daude teilape-trenkadetan, eta paraleloan jartzen dira, nibelatuta eta junturak ondo berdinduta.
- BI3.3 Konpresio-geruza berdingiden bidez egiten da, eta zehaztutako lautasuna du gainazalak.
- BI3.4 Egurrezko oholak morteroz itsasitako arrastelen gainean jartzen da, alboetan txandaka zulatutako puntak dituela, morteroa arrasteletan ondo itsasten direla bermatzeko.
- BI3.5 Malda-geruza morteroz osatzeko, berdingidak jartzen dira akabera-geruzaren gainean, errespetatuz euskarria bera eta egiturazko junten eta berezkoen jarraitutasun eza.
- BI3.6 Malda-geruza mortero arinduz osatzeko, berdingida bidezko morteroz egiten da akabera, errespetatuz euskarria bera eta egiturazko junten eta berezkoen jarraitutasun eza.
- BI3.7 Estalkitik eta baoetatik ateratzen diren elementuak babestu egiten dira lanak egin bitartean, beren funtzioa betetzen jarrai dezaten.
- LB4: Estalkietan material isolatzaile termikoa jartzea bero-fluxuak mugatzeko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-kondizioak errespetatuz.
- BI4.1 Teilape-trenkaden arteko gainazal osoa estaliz jartzen da forjatuaren gaineko material isolatzailea.
- BI4.2 Elkarguneetan zokaloak osatuz jartzen da material isolatzailea.
- BI4.3 Zehaztutako ainguraketa-puntuetan finkatzen dira forjatu inklinatuaren gaineko material isolatzailearen piezak, tarterik utzi gabe haien artean.
- BI4.4 Estalkitik eta baoetatik ateratzen diren elementuak babestu egiten dira lanak egin bitartean, beren funtzioa betetzen jarrai dezaten.

Lanbide-testuingurua:

Ekoizpen-baliabideak

Paletak, nibelak, berunak, eskuairak eta metroak. Mirak eta sokak. Palak, eskorgak, tiraderak, esportak eta pertzak. Igeltsuzko pasta, mortero eta hormigoi prestatuak. Mortero eta hormigoi arinduak. Adreilu zulodun sinpleak eta bikoitzak. Ohol zeramikoak eta adreilu meheak. Ebakigailuak. Hormigoizko xafla aurrefabrikatuak. Geruza anitzeko panel aurrefabrikatuak. Egurrezko oholak eta estrabeak. Estalkietarako isolatzaile termikoak. Kurrikak, aliketak, mailuak, mazoak eta iltzeak. Norbera babesteko baliabideak eta babes kolektiboko baliabideak. Baliabide osagarriak. Behin-behineko instalazioak.

Produktuak eta emaitzak

Teilape-trenkadak. Estalki-aulak. Estalkirako geruza osagarriak. Estalkirako isolatzaile termikoaren geruzak.

Erabilitako edo sortutako informazioa

Obraren krokisak, estalkiekin lotuak. Lan-agiriak, gorabeheren agiriak, eskaera-agiriak eta materialak jasotzea. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak. Obraren seinalizazioa.

III PRESTAKUNTZA

1. prestakuntza-modulua:
OBRAKO LAN OSAGARRIAK

1

2. prestakuntza-modulua:
PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK

2

3. prestakuntza-modulua:
ESTALTZEKO FABRIKA-OBRAK

3

4. prestakuntza-modulua:
ESTALKIETAKO ISURIALDE TRIANGELUARRAK

4

5. prestakuntza-modulua:
FABRIKETAKO ETA ESTALKIETAKO IGELTSERO-ERAGIKETA
OSAGARRIETAKO LANEKOAK EZ DIREN LANBIDE-JARDUNBIDEAK

5



1

1. prestakuntza-modulua: OBRAKO LAN OSAGARRIAK

Kodea: MF0276_1

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC0276_1: Eraikuntza-obretako lan osagarriak egitea

Iraupena: 50 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Eraikuntza-obretako lan-arriskuak deskribatzea, identifikatuz prebentziorako irizpide oinarrizkoak, lan-ekipoak behar bezala erabiltzeko arauak eta babes kolektiboko baliabideen funtzioak, eta behar bezala interpretatuz obraren seinalizazioa.

EI1.1 Eraikuntza-obretako lan-arrisku ohikoenak identifikatzea, eta haiekin erlazionatutako prebentzio- eta babes-neurriekin lotzea.

EI1.2 Eraikuntza-sektoreko ezbeharren maiztasun- eta eragin-indize totalak eta partikularrak interpretatzea.

EI1.3 Eraikuntza-sektoreko istripuen kausak eta ondorioak erlazionatzea, istripu-moten arabera: arinak, larriak, oso larriak, hilgarriak.

EI1.4 Eraikuntza-sektorean gertatutako istripu hilgarrien eta oso larrien kausak zerrendatzea, estatistikak argitaratuta dituen azken denbora-tartean.

EI1.5 Obren seinalizazioa behar bezala identifikatzea eta interpretatzea.

A2: Obrako lan osagarriekin lotutako norbera babesteko ekipoekin, tresnekin eta erremintekin lan egitea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.

EI2.1 Jarduera jakin baterako behar diren erremintak eta tresnak identifikatzea.

EI2.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Makinak, erremintak eta tresnak behar den trebetasunez eta zehaztasunez erabiltzea.
- Norbera babesteko jantziak eta ekipoak behar bezala hautatzea eta erabiltzea.
- Erabilitako erremintak, tresnak eta norbera babesteko ekipoak biltegiratzea, eta haien mantentze- eta kontserbazio-lanak egitea.

A3: Obretan gehien erabiltzen diren baliabide osagarriak eta babes kolektibokoak ezagutzea, instalatzen laguntzea eta zaintzea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.

EI3.1 Obra-leku batean instalatutako baliabide osagarrien eta babes kolektiboko funtzioa eta konposizioa identifikatzea, eta haien erabilera deskribatzea (instalatzea, egiaztatzea, mantentze-lanak egitea, kentzea eta biltegiratzea).

EI3.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Behar diren baliabide osagarriak muntatzea eta desmuntatzea, norbaitek gainbegiratuta eta jasotako argibideak errespetatuz.
- Erabilitako baliabide osagarriak biltegiratzea, haien mantentze-lanak egitea eta egiaztatzea.

EI3.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Behar diren babes kolektiboko baliabideak muntatzea eta desmuntatzea, norbaitek gainbegiratuta eta jasotako argibideak errespetatuz.
- Erabilitako babes kolektiboko baliabideak biltegiratzea, haien mantentze-lanak egitea eta egiaztatzea.

A4: Kargak manipulatzeko eta garraiatzeko, errespetatuz lan-metodoei eta segurtasun-kondizioei buruz jasotako argibideak.

EI4.1 Ohiko horridura-motak obrako material-mota bakoitzerako deskarga-, garraio- eta bilketa-prozesuekin erlazionatzea.

EI4.2 Materialen eskaera- eta hartze-agiriak interpretatzea, behar bezala kalkulatu material baten bolumena eta pisua.

EI4.3 Kargak eskuz altxatzea, prozedura egokiak aplikatuz gehiegizko ahaleginak saihesteko.

EI4.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, material eta ekipo egokiz hornitzea, mota, kantitate, kokapen, antolaketa eta epeari dagozkien eskakizunak betez.

EI4.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kargak lekualdatzeari buruzko kasu praktiko batean, jasotze-makinen operadoreari jakinaraztea, behar bezain argi eta zehatz eta ezarritako segurtasun-neurriak errespetatuz, zer maniobra erabili behar dituen.

A5: Makina arinak erabiltzea eraikuntzako lanbideei laguntzeko, jasotako argibideak eta eskuliburueta zehaztapenak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.

EI5.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, materialak ebakitzea, egindako eskaerak betez metodoei, geometriari eta epeei dagokienean, eta eskuliburueta zehaztapenak betez.

EI5.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, eraikuntza-elementuak partzialki eraistea, egindako eskaerak betez metodoei, gainazalari, zatikatzeari eta epeei dagokienean, eta eskuliburueta zehaztapenak betez.

EI5.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, erretenak egitea eraikuntza-elementuetan, egindako eskaerak betez metodoei, geometriari eta epeei dagokienean, eta eskuliburueta zehaztapenak betez.

EI5.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, betelaneke lurra trinkotzea, egindako eskaerak betez metodoei, antolaketari eta betelaneke lurraren konposizioari dagokienean, eta eskuliburueta zehaztapenak betez.

A6: Lurrak eskuz hondeatzeko, fintzeko eta profilatzeko teknikak aplikatzea, lan-metodoen eta segurtasun-neurrien inguruan emandako jarraibideak errespetatuz.

EI6.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Eskuzko bitartekoak erabiliz, adierazitako neurriak dituzten lubakiak eta putzuak hondeatzea, zuinkatutako oinplanoa eta erreferentzia-mailarekiko sakontasuna errespetatuz.
- Hustuketen hondo guztiak berdintzea gainazaleko finketekin, emandako jarraibideak betez.
- Hustuketen alde guztiak profilatzea ezpondetako finketekin, emandako jarraibideak betez.

Edukiak:

1. Obra-lekuen egokitzapena.

- Garbiketa, obra-lekuetako mantentze-lanak, hondakinak hustea.
- Baliabide osagarriak eta babes kolektibokoak instalatzea eta kentzea.
- Deskarga-, garraio- eta uzte-gomendioak, kodeak eta ikurrak.
- Obretan kargak garraiatzea: Eskuzko baliabideak. Baliabide mekanikoak.
- Obretan kargak jasotzea:
 - Eskuzko baliabideak.
 - Baliabide mekanikoak.
- Obra-lekuak egokitzeko ekipoak:
 - Motak eta funtzioak.
 - Hautaketa, egiaztapena eta maneiua.
- Obra-lekuak hornitzeko ekipoak:
 - Motak eta funtzioak.
 - Hautaketa eta egiaztapena.
 - Maneiua, mantentze-lanak, zaintza eta biltegiatzea;
- Behin-behineko baliabide osagarriak: Mantentze-lanak, zaintza eta biltegiatzea.
- Obrako behin-behineko instalazioak.
- Obren seinalizazioa.
- Ezarri berri diren material, teknika eta ekipo berritzaileak.

2. Obra-lekuen hornidura eta biltegiak.

- Materialak:
 - Ezaugarriak eta dentsitateak.
 - Horniketa-moduak: ontziratutako gabe, ontziratuta, paletetan.
- Biltze-baldintzak:
 - Euskarriaren erresistentzia.
 - Pilaketa-garaiera.
 - Ingurune-faktoreak.
- Ekipoak:
 - Motak eta funtzioak.
 - Hautaketa eta egiaztapena.



- Maneiua, mantentze-lanak, zaintza eta biltegiratzea;

3. Lanbideei laguntzeko eragiketak.

- Makineria arinarekin laguntzeko prozesuak eta kondizioak:
 - Materialen ebaketa, ebakigailuekin eta ingletagailuekin.
 - Elementuen eraiste partziala, mailu hausleekin.
 - Betelaneen trinkotzea, sumilekin eta igel-sumilekin.
 - Elementuetako erretenak eta zuloak, erretenak egiteko makinekin eta zulagailuekin.
 - Kableak babesteko hodiak jartzea eta erretenak betetzea.
- Ekipoak:
 - Motak eta funtzioak.
 - Hautaketa, egiaztapena.
 - Maneiua, mantentze-lanak, zaintza eta biltegiratzea;
- Laneko eta ingurumeneko arriskuak, prebentzio-neurriak.
- Ezarri berri diren material, teknika eta ekipo berritzaileak.

4. Zuloak eta lubakiak eskuzko baliabideekin hondeatzeko eragiketak

- Hondeaketak egiteko prozesuak eta kondizioak:
 - Oinplanoen eta sakontasunen zuinketak.
 - Eskuzko baliabideekin hondeatzea.
 - Lubakiak eta zuloak profilatzea eta fintzea.
 - Hondo horizontalak eta maldadunak fintzea.
 - Alboak profilatzea.
- Garbiketa-hormigoia-aren geruzak obran jartzea.
- Ekipoak: Motak eta funtzioak. Hautaketa, egiaztapena. Maneiua, mantentze-lanak, zaintza eta biltegiratzea.
- Laneko eta ingurumeneko arriskuak, prebentzio-neurriak.
- Ezarri berri diren material, teknika eta ekipo berritzaileak.

5. Eraikuntza-obretako oinarritzko segurtasuna.

- Eraikuntza-obretako prebentzio, segurtasun eta osasunari buruzko legeria.
- Laneko istripuak: motak, kausak, ondorioak eta estatistikak.
- Istripuak daudenerako jarduera-prozedurak eta lehen laguntza.
- Norbera babesteko ekipoak eta babes kolektiboko ekipoak. Motak, araudia eta erabilera-irizpideak.
- Ekipo eta tresna hauek erabiltzean kontuan izan beharreko segurtasun-neurriak eta arriskuak prebenitzeko neurriak:
 - Materialen maneia.
 - Obren seinalizazioa eta itxitura.
 - Instalazio eta ekipo elektrikoak.
 - Aldamioak, plataformak eta eskailerak.
 - Karga-jasogailuak, garabiak eta uhal garraiatzaileak.
 - Obrako makineria arina.
 - Irristatzeak, luiziak eta eusteak.

2

2. prestakuntza-modulua:

PASTAK, MORTEROAK, ITSASGARRIAK ETA HORMIGOIAK

Kodea: MF0869_1

Gaitasun-atal honi lotuta dago: UC0869_1 Pastak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoiak egitea.

20 **Iraupena:** 30 ordu

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Pastak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoiak egiteko prozesuak deskribatzea, osagaiak adieraziz, aplikazio-motak azalduz, eta laneko metodoak zehaztuz.

E11.1 Nahasketa jakin baten aplikazio-eremua deskribatzea.

E11.2 Pastak, morteroak eta hormigoiak egiteko lanetan erabiltzen diren termino teknikoak ondo ulertzea.

E11.3 Aurkeztutako nahasketa bat zer motatakoa den ezagutzea, haren osagaiak identifikatuz, eta hura egiteko prozesua deskribatuz.

E11.4 Pastak, morteroak eta hormigoiak egiteko material eta teknika berritzaileak deskribatzea, eta prestakuntza-moduluari lotutako gaitasun-atalean zer eragin duen baloratzea.

A2: Norbera babesteko ekipoekin, tresnekin eta erremintekin lan egitea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.

E12.1 Jarduera jakin baterako behar diren makinak, erremintak eta tresnak identifikatzea.

E12.2 Makinak, erremintak eta tresnak jarduera jakin baterako behar den trebetasunez eta zehaztasunez erabiltzea.

E12.3 Pastak, morteroak eta hormigoiak egiteak dituen laneko eta ingurumeneko arriskuak identifikatzea, haien larritasuna baloratzea, eta erlazionatutako prebentzio- eta babes-neurriak haiekin lotzea.

E12.4 Jarduera jakin baterako behar diren norbera babesteko jantziak eta ekipoak behar bezala hautatzea eta erabiltzea.

E12.5 Erabilitako erremintak, tresnak eta norbera babesteko ekipoak biltegiratzeko lanak, eta haien mantentze- eta kontserbazio-lanak deskribatzea eta aplikatzea.

A3: Hormigoiak, morteroak eta pastak prestatzea, haiek egiteko jarraibideak betez eta adierazitako loditasun- eta erresistentzia-baldintzak errespetatuz.

E13.1 Nahasketa jakin baten konposizioa eta dosifikazioa ezartzea, haren erresistentzia, loditasun, itsasgarritasun eta/edo hura lantzeko behar den denboran oinarrituta, eta/edo adierazitako taulei eta abakoei begiratuta.

E13.2 Nahasketa jakin baten oratze- eta berroratze-kondizioak, egokitzapen- eta heltze-denborak eta balio-bizitza zehaztea.

E13.3 Ingurune-kondizioek nahasketen prestaketan eta propietateetan duten eragina deskribatzea.

E13.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, nahasketak egitea, eskatzen diren homogeneotasun-kondizioak betez eta adierazitako bolumen eta epeetara egokituz.

A4: Itsasgarriak eta juntura berdintzeko materialak prestatzea, jarraibideen arabera eta adierazitako loditasun- eta erresistentzia-kondizioak betez.

E14.1 Zementu-itsasgarri baten nahasketa baten dosifikazioan, ura erabat edo neurri batean emultsio jakin batekin ordezkatzeko korrelazioa ezartzea.

E14.2 Nahasketa jakin baten oratze- eta berroratze-kondizioak, heltze-denbora eta balio-bizitza zehaztea.

E14.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, itsasgarriak egitea, eskatzen diren homogeneotasun-kondizioak betez eta adierazitako bolumen eta epeetara egokituz.

Edukiak:

1. Igeltserotzako eta estalduretako morteroak eta pastak

- Obra-lekuan egiten diren morteroak eta pastak
- Aurrez dosifikatutako morteroak eta pastak.
- Osagaiak: aglomeratzaileak, aditiboak, hondarrak eta ura.
- Dosifikazioa, loditasuna, plastikotasuna eta erresistentzia. Aplikazioak.
- Araudia eta saiakuntzak.
- Eraikuntza-materialen CE markaketa.
- Eraikuntza-materialetarako dauden kalitate-marka edo -zigiluak.

2. Itsasgarriak eta juntura berdintzeko materialak.

- Zementu-itsasgarriak.
- Dispersio-erretxinak dauzkaten itsasgarriak.
- Erreakzio-erretxinak dauzkaten itsasgarri eta junturak berdintzeko materialak.
- Osagaiak:
 - Aglomeratzaileak.
 - Aditiboak.
 - Hareak.
 - Ura eta emultsioak.
- Dosifikazioa, loditasuna eta plastikotasuna.
- Aplikazioak.



- Araudia eta saiakuntzak.
- Eraikuntza-materialen CE markaketa.
- Eraikuntza-materialetarako dauden kalitate-marka edo -zigiluak.

3. Morteroak, pastak, hormigoiak, itsasgarriak eta junturak berdintzeko materialak egitea

